

OSPE ZURI BITTOR !

Udagoiena edo zen. Otxandion bertaratu ginen eta handik Elosu aldeko ur ertzean zegoen etxola baten sua piztu genuen eta hantxe ekin genion, edo ekin zion euskeraren, jainko urdinen, mendi aranen, zuhaitz sakratuen eta giza lohien monologari. Han ginen Mañari, Joseba-txiki (Sarri), ni eta BITTOR KAPANAGA.

Aurretiaz elkar ezagutzen genduan. Franco bizi zen oraindik eta Bittorrek gure Durangerrian bazuen halako ospe berezi bat. Eibarren ibilia zen Juanito San Martin, Basauri, Laspiur eta konpañiakin euskeraren irakaskuntzan. Parisen munduko lehen euskal kongresuan Agirre Lehendakariak eta baita Mirande eta Peillenekin eta... aunitzekin egona zen. Euskera baturako eztabaidetarako idazleen bilera Ermun antolatzen, Gerediaga Elkartearen sorrera, Otxandion etxebizitza kooperatiboak, Ehas-Hasi, 77ko demokrazia... ingurukook Aitajauna genduan.

Gizaki gehienok lez hainbat uretatik edana (berak oso ur gutxi edaten zuen, oso). Euskal tradizioan, gerra ostetxoan, Orixe zen gizonik jakintsuena. Urruti zegoen ordea. Hemen barruan beste loraldi batzuk iritsi ziren. Azkue hil zen. Kruwig gaztea lapurterara lerratu zen eta beragaz Eusebio Erkiaga bera, Villasante... Donostian Mitxelenak zuzentzen zuen EGANen, gastronomiaz, zinemaz, unamunoz, trszendentziaz, filosofiaz,... artikulua zetozen. Itsasoz haraindi, Guatemala-

tik, Euzko Gogoa, baina goldaketan, Txomin Agirreren baraztean jarraitu nahirik, Laffiten kontra (¿), Juana Bixenta Oلابeren bertsoak han-hemen aurkitu eta buruz dakizkienei ahanterazi eta ezabatu euskal literaturaren aztarnetatik (Orixek Santi Onaindiari idatzia). Zurrunbilo honetan elikatu zen Bittor.

Olerti Zornotzan, Gabriel Aresti eta Kintana gaztea Bilbo urbanotik, Zeruko Argiatik Rikardo Arregi, Saizarbitoria, Mikel Atxaga, Amatiño, Lete, Larresoro, Arantzazuko Yakinetik Azurmendi, Intxausti, Torrealdei, Anaitasunatik Imanol Berriatua, Txikito... Euskera batu baten aldarria bideratu guran... Euskaltzaindia, Donostia, Hendaia, Baiona, Arantzazu arantzaztua... arma, tiro, pum! Batasunaren Kutxa, *zarete, garete, karrete*, (Bittor dixit), bizkaiera baztertua, Hren garaipena, gerkerarik ez genekienok hizki horren esannahiaz jabetu ginen, leninismoa, akabo gure erlijiyua eta hizkera garbiya... Talka, talka lehenaren eta geroaren artean, talka aldeanismoaren eta progresoaren artean, talka... euskaldun fededun Herri honetan urte hoietan hustu ziren seminarioak, talka....

Euskeraren eremuan ospel xamar genuen Alderdia. *Aita zer egin duzu oi zure semea, erderan basi duzu ai dohakabea...* Juan Ajuriagerra Euzko Alderdi Jeltzaleko gidaritzakoa, otxandiorra jatorriz. Beronen idazkari sasian Luis Mitxelena, gudaria, espetxeratua, hizkuntza klasikoetan doktore, gorago aipatu denez EGANen zuzendari. Berrogeita hamarreko – hirugogeiko Euskaltzaindiaren gidaritzak, itzala hartu zuen. *EUSKARA IALGI HADI MUNDURA!* Alderdiaren epelkeriatik ihesi, sakristi eta intzentsu lurrunetik eguneroko lan tresna eta jakintza gaiak garatzeko erabilgarri bilakatu guran. Ikastola sortu berriak, Xalbador *frantsesaren* euskera ulertezinak, Aresti ikonoklasta... urrats bizkorak behar ziren, bide erakusle bat, hizkuntza bat behar genuen, ez bost-hamar jakitunen laborategiko *jolas* tresna.

Azkue zenak sekulakoak egin zituen euskal alorrean. Bera-ri zor dizkiogu besteak beste *Hiztegia, Euskal Kantutegia, Euskal Erriaren Yakintza, Euskal Morfologia...* bada neuk irakurria Mitxelenaren lanen baten Azkuek huts nabarmenak egin zituela. Noski baietz! Baina harek erakutsi bidean zenbat asma-tu zuen?

Arantzazuko talka horretan Mitxelenak hobestutako bidean, zenbat huts edo hobeto egin zitezkeen akordio... Gipuzkera hartu zen EUSKARA BATUAREN ardatz lez. Priesa zegoen. Tes-tuak behar ziren. Zenbait euskalki baztertuak sentitu ziren. Euskalki hoietako erabiltzaile aunitz mindu zen. Sartalde alde-kook batik bat, bizkaierazkook. Jainko bakook, ateoek, mar-xistek irabazi dute non eta Arantzazun! Bestalde, Bittorrek *Jainkoaren hizkuntza asmatu dute. Hemen ere egon dira Jainko faltsuak eta bat argi esateko Mitxelena izan zen. Euskara ez zuen ondo ezagutzen, latina maite eta latina bizi zuen.*

Hizkuntza arakatzen ari da Bittor. Protohizkuntza, berton sortua, beste inoren eraginetik jarein, norbere beharrek eraka-rria eta bertotik garatua: **EUSKARA ERRO ETA GARA**, *ar, iz, ur... ar-eitz, (Deitz-ar, amai-hamaika, akelarrea-okelerrea, arangio-angiozar, ur-itx, urdin, in... oles-aro, olentzaro...* Egiaren hegian dantzatu daitekeen teoria. Nire uste apalean koherentziatik hurbil. Baina hizkuntza NORA NAHIKOA behar dugu. Nondik gatozen jakitea komeni zaigu. Aldiz gaurko in-gudea ordenagailua dugu eta interneta mailua. *Haritz-lizarrak bizirik harangoitiko larreetako itzalean, izarretara bidaiatzeko kalkuluak egiteko jakituria zabaletik edan behar, ostera.*

Egiaren jabegoa, gordailua bere kolkoan du Bittorek. **Garal-dea** argitaratu zuen Sarrailek Ihartzakok. *Horren lapikoa beterik ja-gok.* Astarloaren teoretara hurreratzen haz, paradisuan be.... *Ha, abadie zuan, ha bera be latinetik...* Zubiaga be hor jabilk Europako hizkuntzen haseran euskara ete dagoen eta zazpi zu-tabetan errotzen jok... *bardin jarraitzen joagu, latina, gerkeria,*

bemen euskera neuk aztertu joat Barandianek erakutsitako bi-detik... autoestimua goian gure otxandiararak. Andolinen babes aurrkitu guran ibili zen, ingelesa eta alemana omen zekizkielako besteak beste eta honela agian bere teoriak... Joseba-txikiri gomendatuko dizkio hizkuntzaren erroak eta Anbotoko Mari Urdinen ungentuak... gure lurraldeetara *demokrazia* iristean Gerediaga Elkartearen zeregina amaitua dela eta aro berrian alderdien bideak jorratu behar direla aholkatuko digu... *Ez dira betiko garai onenak / azken finean gizaki hutsak gara...*

Gure Aitajauna, Patriarka dela diot, gure horretan zenbait gerediagar, durangerritar sartzen ditut. Nik neuk haboro zor diot Bittori. Gure hizkuntzaren, euskeraren balioa bere kautan idoro behar dugula erakutsi zidan. Gure mithologiaren atzean izate oso bat izan daitekela, lehengo hondar batzuk gorputz oso bat osotu arteko aztarnak izan daitezkeela erakutsi zigun, zidan. Izpirituz eta tentuz ekitea giza garapenerako beharrezko dela. Bere berbak erabiliz, *lapikoari ez jarri taparik*. Egunero ikasten ari gara.

Seme gazteari bere aitaren berri emateko eskatzen diotenean zintzo eta bihotz zabal erantzun nahi du. Aita du eredu. Era berean beronekin ditu isilune latzenak. Orban barikoa izan nahi du gazteak eta aitari aurpegiratuko dizkio hainbat ibilera antzu. Bittor hil berri dugula-eta lerro batzuk idazterakoan haren sormen, poesi sena, gidaritza... gogoan nituen, ditut. Lorategia zatekeen, agian. Bittor gizatiarragoa, hurbilagoa, bilustuago bat gerturatzea nahiago izan dut oraingoan. Giza ezereztik, gure makurreriatik... denok bezala, eguneroko ezinak, plazerrak, kolpeak, saldukeriak, itxaropenak, penak eta bozkarioak bizi zituen Bittorek. Gu langoxe a zen Bittor eta horregatik dugu handia, Aitajauna. Gure hutsune, bere hutsune eta guzti zer aztertu badagoela, non arakatu badagoela erakutsi izan digulako. Ospe zuri Bittor!

Anttonmari Aldekoa-Otalora Zamalloak
2011-09-28 San Migel bezperan